

BILBOK, ADINEKOEKIN ADEITSUA DEN HIRIA, UDAL PLAN BERRIA AURKEZTU DU TALDE HORREK URIAREN BIZITZAN PARTE HAR DEZAN

- Hirugarren Plan honen helburu orokorra da Bilbo hiri lagunkoiagoa, parte-hartzaileagoa, inklusiboagoa, osasungarriagoa, seguruagoa eta iraunkorragoa izatea, bertan bizi diren adinekoen bizi-kalitatea errazteko eta hobetzeko.
- Dokumentuak 2024ra arte balio du eta 10 ardatz estrategiko, 34 helburu eta 17 ekintzatan antolatu da udal-politikekin lotutako hainbat jardueraren eremutan: hirigintza, berdintasuna, gizarte-zerbitzuak, kultura, kirola, osasuna, partaidetza eta herritarren informazioa, besteak beste.
- Bilboko Udalak “Bilbo, Adinekoekin Adeitsua den Hiria” izeneko proiektu estrategikoaren fase honi aurre egingo dio, udal zerbitzu eta politiketan adinaren ikuspegia hobeto txertatzeko konpromisoarekin.

(*Bilbon, 2021eko urriaren 26an*).- Bilboko Udalak jendaurrean aurkeztu du, gaur goizean, zahartze aktiboaren ideian oinarritutako “**Bilbo, Adinekoekin Adeitsua den Hiria. 2020-2024**” izeneko III. Plana. Ekitaldi instituzional batean, Arabiar Aretoan eta **Juan Mari Aburto** alkatea buru zelarik, lan-proiektu berri honen gakoak eman dira ezagutzera. **Juan Ibarretxe** Gizarte Ekintzako zinegotziak azaldu ditu Plan berri honen prozesua eta diseinua. Plana idazteko, adineko hamaika boluntarioren laguntza aktiboa izan du. Hain zuzen ere, pertsona horietako batek, **Itziar Bilbaok**, bere esperientzia kontatu du.

Uriko adinekoen ordezkarien “**talde eragile**” honi eskerrak eman dizkio alkateak proiektu honetan parte hartzeagatik: “*eskerrak eman nahi dizkizuegu lan-plan hau diseinatzeko lagundu izanagatik. Zuen konpromisoa da gure uriak ‘Bilbo, Adinekoekin Adeitsua den Hiria’ Planetik espero duenaren islarik onena: herritar aktiboak, kritikoak eta guztion onerako inplikatuak.*” Horren aurretik, Aburtok aukera izan du kolaboratzaileen talde horrekin biltzeko lan-topaketa batean, haien kezkek, uriri buruz duten ikuspegia eta Gizarte Ekintzako Sailaren dokumentu estrategiko honen helburuak partekatzeko eta eztabaidatzeko.

2024ra arte ezarritako Planaren hirugarren bertsio honen ezaugarri nagusia da **parte-hartzailea, irekia eta malgua** izatea. Herritarren aldetik premia eta aukera berriak sortu ahala jarduera eta estrategia berriak sartzeko da asmoa.

Izan ere, Juan Mari Aburtok beste bilbotar batzuk animatu ditu bat egitera eta **Udalaren Adineko Laguntzaileen Sare** berri batean parte hartzera. “*Partaidetza handiagoa nahi dugulako, adinekoen protagonismo handiagoa politika publikoen diseinuan, zuzeneko inplikazio handiagoa auzoen hobekuntzan, zerbitzuetan, kultura-, kirol-, aisialdi- eta jai-eskaintzan... Hemen, guztiok ematen dugu, borondatea besterik ez dugu behar*”, adierazi du alkateak

“Bilbo uri adiskidetsuagoa, parte-hartzaileagoa, inklusiboagoa, osasungarriagoa, seguruagoa eta jasangarriagoa izan dadin, bertan bizi diren adinekoen bizi-kalitatea errazteko eta hobetzeko”, plan hau 10 ardatz estrategikotan, 34 helburutan eta 17 ekintza lehenetsitan egituratzen da, udal-politikekin zerikusia duten hainbat jardueraren eremutan: hirigintza, berdintasuna, gizarte-zerbitzuak, kultura, kirola (Bilbao Kirolak), osasuna, partaidetza eta herritarren informazioa, bestek beste.

Bilboko Udalak “Bilbo, Adinekoekin Adeitsua den Hiria” izeneko proiektu estrategikoaren fase honi aurre egingo dio, **udal zerbitzu eta politiketan adinaren ikuspegia hobeto txertatzeko konpromisoarekin**. Gaur egun, uriko hiru pertsonetatik batek 60 urte baino gehiago ditu, biztanleriaren % 31 60 urtetik gorakoa da eta % 9 80 urtetik gorakoa (2019ko datuak).

Ilido horretan, alkateak ohartarazi du *“adina ez dela oztopo uriko bizitzan, ekintza komunitarioetan eta auzoen hobekuntzan parte hartzeko”*. Biztanleriaren bizi-itzaropena handitzeari dagokionez, Juan Mari Aburtok aitortu du *“biztanleriaren zahartze progresiboak gaur egungo erronka garrantzitsuenetako batzuk planteatzen dizkigula”* eta, gainera, ziur agertu da *“erronka handia dugula”*. *Aurreratu egingo gara eta 20 urte barru zer beharko dugun iragarriko dugu. Izan gaitezen ausartak. Presta dezagun 2040ko uria. Uri adimentsua, eskuzabala, aukerak dituena eta belaunaldien arteko justizia sustatzen duena”*:

III. Udal Plan hau **Bilboko Balioen Agiriarekin** (Bilbao Balioen Hiria) eta 2030 Agendaren **Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH)** lerrokatuta dago.

ERANSKINA:

- **Bilbo, Adinekoekin Adeitsua den Hiria III. Plana**

INFORMAZIO GEHIAGO:

- **“Bilbo, [adinekoen lagun](#)” II. Plana**

#BilboAdinekoekinAdeitsuadenHiria

BILBAO, AMIGABLE CON LAS PERSONAS MAYORES, PRESENTA UN NUEVO PLAN MUNICIPAL PARA IMPULSAR LA PARTICIPACIÓN DE ESTE COLECTIVO EN LA VIDA DE LA CIUDAD

- El objetivo general de este Tercer Plan es hacer de Bilbao un municipio más amigable, más participativo, inclusivo, saludable, seguro, sostenible que facilite y mejore la calidad de la vida de las personas mayores que viven en él.
- El documento, válido hasta 2024, se vertebra en 10 ejes estratégicos, 34 objetivos y 17 acciones priorizadas en diferentes ámbitos de actuación relacionados con las políticas municipales: urbanismo, igualdad, servicios sociales, cultura, deporte, salud, participación e información ciudadana, entre otros.
- El Ayuntamiento de Bilbao afronta esta nueva fase del proyecto estratégico “Bilbao, Ciudad Amigable con las Personas Mayores” con el compromiso de mejorar la incorporación de la perspectiva de la edad en el conjunto de servicios y políticas municipales.

(Bilbao, a 26 de octubre de 2021).- El Ayuntamiento bilbaino ha presentado públicamente, esta mañana, el III Plan Municipal “**Bilbao, Ciudad Amigable con las Personas Mayores. 2020-2024**”, basado en la idea del envejecimiento activo. En un acto institucional, en el Salón Árabe del Consistorio, presidido por el Alcalde **Juan Mari Aburto** se han dado a conocer las claves de este nuevo proyecto de trabajo. El Concejal de Acción Social, **Juan Ibarretxe**, se ha encargado de explicar el proceso y diseño de este nuevo Plan, que ha contado para su redacción con la colaboración activa de un grupo de once personas mayores voluntarias. Precisamente, una de estas personas, **Itziar Bilbao**, ha intervenido también para contar su experiencia.

A este “**grupo motor**” de representantes de las personas mayores de la Villa, el Alcalde ha agradecido su participación en este proyecto, “*queremos reconocer y agradeceremos vuestra colaboración en el diseño de este plan de trabajo. Vuestro compromiso es el mejor reflejo de lo que nuestra ciudad espera del Plan Bilbao Ciudad amigable: ciudadanía activa, crítica e involucrada con el bien común*”. Aburto, previamente, había tenido la oportunidad de reunirse con este equipo de colaboradores en un encuentro de trabajo para compartir y debatir sobre sus inquietudes, su visión de la ciudad y los objetivos de este documento estratégico del área de Acción Social.

Esta tercera versión del Plan establecido hasta el 2024 se caracteriza principalmente por ser **participativo, abierto y flexible**. La idea es que se incorporen nuevas actuaciones y estrategias según vayan surgiendo nuevas necesidades y oportunidades por parte de la ciudadanía.

De hecho, Juan Mari Aburto ha animado a otras bilbainas y bilbainos a sumarse, y a formar parte de una nueva **Red de Personas Mayores Colaboradoras del Ayuntamiento**. *“Porque queremos más participación, más protagonismo de las personas mayores en el diseño de las políticas públicas, más implicación directa en la mejora de los barrios, en los servicios, en la oferta cultural, deportiva, ocio, festiva... Aquí todas y todos sumamos, solo necesitamos voluntad”*, ha manifestado el Alcalde.

Con el objetivo general de *“hacer de Bilbao una ciudad más amigable, más participativa, inclusiva, saludable, segura, sostenible que facilite y mejore la calidad de la vida de las personas mayores que viven ella”*, este **Plan se vertebra en 10 ejes estratégicos, 34 objetivos y 17 acciones priorizadas** en diferentes ámbitos de actuación relacionados con las políticas municipales: urbanismo, igualdad, servicios sociales, cultura, deporte (Bilbao Kiroalak), salud, participación e información ciudadana, entre otros.

El Ayuntamiento de Bilbao afronta esta nueva fase del proyecto estratégico “Bilbao, Ciudad Amigable con las Personas Mayores” con el compromiso de **mejorar la incorporación de la perspectiva de la edad en el conjunto de servicios y políticas municipales**. En la actualidad, una de cada tres personas en la Villa tiene más de 60 años, sobre el 31% de la población cuenta con más 60 años y el 9 % más de 80 años (Datos de 2019).

En este sentido, el Alcalde ha advertido de que *“la edad no es un obstáculo para poder participar en la vida de la ciudad, en acciones comunitarias y en la mejora de los barrios”*. Sobre el aumento de la esperanza de vida de la población, Juan Mari Aburto ha reconocido que *“el progresivo envejecimiento de la población nos plantea algunos de los desafíos más importantes de la actualidad social”*, y además, se ha mostrado convencido de que *“tenemos un gran reto. Vamos a adelantarnos y predecir qué vamos a necesitar dentro de 20 años. Seamos valientes. Preparemos la ciudad del 2040. Una ciudad inteligente, generosa, con oportunidades y que promueva la justicia intergeneracional”*.

Este III Plan Municipal está alineado con la **Carta de Valores de Bilbao** (Bilbao Balioen Hiria) y con los **Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de la Agenda 2030**.

ADJUNTO:

- El III Plan “Bilbao, Ciudad Amigable con las Personas Mayores”.

MÁS INFORMACIÓN:

- [El II Plan “Bilbao, Ciudad Amigable con las Personas Mayores”](#).

#BilbaoCiudadAmigableconlasPersonasMayores